

## KIROL INSTALAKUNTZAK HERRITAR GUZTIEN ESKURA

Aldundiak 10,6 milioi euroko laguntza atara du kirol ekipamenduetarako

Gipuzkoako Foru Aldundia  
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua



### DV

Jarduera fisikoak eta kirolak interes handia pizten dute Gipuzkoan, eta oso zabalduak daude gure artean; izan ere, halako garapen maila dute gure lurraldean, Gipuzkoaren identitatearen ezaugarri bilakatu direla. Garapen maila hori lortu da, zailtzarrik gabe, herri administrazioek bereziki sustatu dituzten hainbat faktore kul-

tural eta sozialengatik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak zeregin garrantzitsua izan du gure lurraldeko kirol ekipamenduen sarea osatzen. 2004-2007 eta 2008-2011 aldietan garatu ziren ekipamendu planetan lortu zen «oinarrizko ekipamendu sarea» ia osorik izateko helburua, eta hurrengo erronka izan zen area berriak sortzea ariketa fi-

sikorako nahiz kirolerako, dela hiriguneetan, dela naturan, hartara herritar guztiak kirola eta ariketa fisikoa egin zezaten aukera zabaltzeko.

Hala ere, azken urteotan, kirolaren munduak ezin izan dio ihes egin gure lurraldeak oro har pairatu duen krisi ekonomikoari, eta testuinguru berri honetara egokitu behar izan du. Horregatik, kontuan hartuta egun dauden arazo ekonomikoak eta alor horretako jarduketak berriak finantzatzeko baliabide gutxi izan-go direla seguruenik, aurrerantzean egingo diren ahaleginak bideratuko dira, alde batetik, egungo azpiegiturak mantentzera eta, bestetik, sare hori area geografiko jakin batzuetan «antola-tzera», bai

kirol instalazioak gutxi erabiltzen diren lekuetan, bai kirol zerbitzu gutxi eskaintzen diren tokietan edo eskaintza horiek kalitate gutxi duen tokietan.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2017-2020ko Kudeaketa Plan Estrategikoa da datoen urteetan Gipuzkoako Foru Aldundiaren gobernu ekintza zuzendu eta orientatuko duen tresna nagusia, eta bertan aurreikusita dago kirol azpiegiturak birmoldatu, berritu, lekualdatu eta ordeztuko lau urteko plan berri bat onestea (Plan Estrategikoaren 9. helburua). Planaren ize-na bera argigarria da, eta xedearen berri ematen digu. Ora-in arte eguneratu ez diren edo soilik partzialki eguneratu di-

ren ekipamendu zaharkituak birmoldatzea, berritzea, ordeztzea edo lekualdatzea sustatzera orientatuta dago plana. Planaren helburua da bermatzea, batetik, kirola herritar guztiarentzat irigarria dela eta, bestetik, herritar guztiak dutela kirola egiteko aukera, baldintza berdinetan.

### Entitate onuradunak

Diru-laguntza hauek Gipuzkoako erakundeentzat daude zuzenduta (udal, udal organismo autonomo edo tokiko sozietate publikoak, toki entitateen partaidetza kapitalaren %50ekoa baino gehiagokoa duten beste sozietateak).

Planaren diru-hornidura 10.605.000,00 eurokoa

da, urtero hurrengo moduan banatuta:

- 2017 : 2.340.000,00 €
- 2018 : 2.755.000,00 €
- 2019 : 2.755.000,00 €
- 2020 : 2.755.000,00 €

Diru-laguntza hauen eskaera eta dokumentazio osagarriaren aurkezpena Internet bidez egin behar da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikokoan kokatuta dagoen diru-laguntzen atarian (<https://www.gfae-goitza.eus>).

Eskaera hauek, erraztuko den modeloaren arabera, datoren otsailaren 24a baino lehen aurkeztu behar izango dira.



### Kirola, herritar guztiaren eskura.

Gipuzkoako kirol azpiegiturak hobetzeko asmoarekin diru-laguntzen planaren berri eman du Foru Aldundiak.